



Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio beharrezko izapideak egin ondoren, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.

Aurrekariak

1. Pertsona bat Arartekora zuzendu zen udalak ez baitzion haren izen-ematea udal erroldan onartzen.

Kexagileek, (...)ek eta (...)k, lokala erosi zuten, etxebizitza gisa egokitu zutena (...) ausoan, (...) zenbakian. Duela bi urtetik hona bertan bizi dira beren bi alabekin, 7 eta 3 urtekoak, hurrenez hurren.

Udal erroldan izena ematen askotan saiatu dira. Hala ere, udalak ez die eskaera onartu ez eta horren inguruan idatzizko erantzunik eman ere, eta hori dela eta, erakunde honetan kexa aurkeztu dute.

2. Kexari behar bezalako izapidetzea emate aldera, erakunde honek gertakari horiei buruzko informazioa eskatu zuen. Informazio eskaeran kexan mantentzen dituen irizpenak aurreratu zituen, erroldan izena ematea ukatzeari buruzkoak; erroldatzea eskatzen duten pertsonak udalerrian bizi direnean, kasu honetan gertatzen den moduan.

Haren erantzunean, udalak berriro ere aipatutako gertakariak azaldu ditu eta ondoren transkribatutakoa gaineratzen du:

“Hernanin indarrean dagoen Hirigintza Araudiaren arabera, erroldan sartzeko erabili nahi den behe solairuko lokalak ez du etxebizitza-baimenik, hirugarren erabilerarako edo eraikinaren goiko solairuetan dauden etxebizitzaren beste erabilera batzuetarako baita.

Aipatu lokala etxebizitza izateko prestatu da ezkutuan, obra horiek egiteko baimenik eskatu gabe. Eta beraz, obra horiek legeztatzen ez diren bitartean, eta erabilera-aldaketa egiten ez den bitartean, lokal horri dagokion hirigintza-estatusa merkataritzako lokala da, eta ez etxebizitzarena.

Egun, Hemaniko Udalak ez du Ordenantzarik zenbait lokal etxebizitza gisa egokitzei aukera **berariaz** arautzen duenik.





Aurreko guztia ikusita, (...) auzoko (...) zenbakiko beheko solairuan dagoen merkataritzako lokalean erroldatzeko eskaera ukatu behar izan du Udal honek."

Aurrekariak ikusita, kexan eta Udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Erroldan izena emateak pertsonen eskubideei eragiten die. Beraz, udalaren erabakiak, izena ematekoak edo ez, berebiziko garrantzia du. Biztanleriaren udal erroldan izena ematea ukatzeak herritar bihurtzearen eskubideak eta betebeharrak lortzea eragozten du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, TAOL. Era berean, oinarrizko eskubideak baliatzeari eragiten dio. Horren adibide da arazo publikoetan berdintasunean parte hartzeko eskubidea. Horrez gain, gizarte eskubideak baliatzeari ere eragiten dio, eta horren adibide da osasun txartela eskuratzea edo Etxebide etxebizitza zerbitzu publikoan izena ematea.

Erakunde honek haien udalerrian bizi diren erroldetan izena emateko arazoak dituzten pertsonen kexa ugari izapidetu ditu. Kexa horietan oinarrituta, Arartekoak aurtengo honako ebazpen hauek hartu ditu: 2008ko irailaren 16koa, horren bidez Errenteriako Udalari gomendatzen zaio pertsona bati erroldan izena eman diezaiola; eta maiatzaren 6koa, horren bidez Portugaleteko Udalari gomendatzen zaio udal erroldan helbidea aldatzea onar dezala.

Aldez aurretik garrantzitsua da kexaren helburua mugatzea, izan ere udalaren erantzunean hirigintzako araudian ezarritako hirigintzako erabileraren egokitzapenari erreferentzia egiten zaiolako, bai eta ordenantza bidez erabilera aldaketa arautzeko beharrari. Ez da espediente horren helburua lokalaren erabileraren egokitasuna aztertzea, ez eta bere aldaketa baimenduko duen araudirik egitea, beste zenbait udal egiten ari diren bezala, baizik eta udalean erroldatzeko eskaera zuzenbidearekin bat datorren aztertzea. Zentzu horretan, lege araubideak (zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudia eta Estatistikako Institutu Nazionalaren ebazpenak) erroldan izena ematea hirigintzako beste jardueretatik ezberdintzen du, hirigintzarekin edo bizigarritasun baldintzekin lotutakoekin.

Gogoeta hori oso garrantzitsua da, izan ere, Hernaniko udalak izena ematearen ezeztapen hori ondorengoan oinarritzen duelako: *"beheko solairuko lokalak, non bertan erroldatzea lortu nahi den, indarreko hirigintzako araudiaren arabera, ezin da etxebizitza gisa erabili, baizik eta hirugarrengoen erabilerentzako edo goian*





dauden etxebizitzaren laguntzarako soilik izango dira". Era berean, *"obrak egiteko ez da inolako lizentziarik eskatu"*. Erakunde honen iritziz, udalak legezko baliabideak eta tresnak ditu, erroldan izena ematea ez direnak, hirigintza legezkoatasuna betearazteko, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen VI. titulutik eratorritakoen arabera. Gainera, udal erroldan izena emateak **ez du inolako jarduera irregularrik baliozkotzen eta ez du lokala etxebizitza gisa erabiltzeko tituluarekin udala ados egotea ere eskatzen.**

2. Lege araubideak dioenez: *"Espainian bizi den pertsona oro behartuta dago ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan izena ematera. Hainbat udalerritan bizi denak urtean denbora gehien ematen duen horretan eman behar izango du izena"*. Errolda ez dago hirigintzako araudia betetzearekin lotuta, ez eta bizigarritasun baldintzekin ere.

Udalerriko erroldako inskripzioan hauek dira pertsonaz zein bizilekuaz nahitaez jaso beharreko datuak, TAOL 16.2 artikulua: *"Udalerriko erroldako inskripzioan hauek dira nahitaez jaso beharreko zehaztasun bakarrik:*

- a) Izena eta abizenak.*
- b) Sexua.*
- c) Ohiko egoitza.*
- d) Naziotasuna.*
- e) Jaiolekua eta jaioteguna.*
- f) Nortasun-agiri nazionalaren zenbakia; edo, atzerritarren kasuan...*
- g) Bakoitzak daukan eskolako ziurtagiria edo titulua, edo titulu akademikoa.*
- h) Hautesle-errolda egiteko beharrezkoak diren beste zehaztasun guztiak, Konstituzioan onartutako oinarrizko eskubideen errespetua bermatuta beti ere."*

Erroldako izena ematean jasotzen den informazioak administrazio erregistroa sortzen du, eta bertan, udalerriko bizilagunen eta beren etxebizitzaren datuak, batik bat, jasotzen dira, TAOLren 16. artikulua zera dio: *"udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrak. Bertako datuek frogatzen dute udalerrian bizi direla eta bertan dutela ohiko bizilekua. Datu horiekin egiten diren egiaztapenak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo guztietarako"*. Benetan udalerrian bizitzea da bete behar den baldintza.

Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiak (ekainaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onetsitakoak), 59.2 artikuluan, honako hau dio abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuak emandako idazkeran: *"El Ayuntamiento podrá comprobar la veracidad de los datos consignados por los*





vecinos, exigiendo al efecto la presentación del documento nacional de identidad o tarjeta de residencia, el libro de familia, el título que legitime la ocupación de la vivienda u otros documentos análogos". Artikulu horrek udalari ahalmena ematen dio herritarrek, izena emateko unean, aitortzen dituen datuak haren identifikazioan adierazitakoekin bat datozen egiaztatzeko edo herritarra, bizi dela dioen etxebizitzan bizi dela egiaztatzeko. Hala ere, egiaztatzearen helburua ez da dokumentuen legezkotasuna epaitzea. Udalak irregulartasun edo gezur arrastorik badu, dagozkion jarduerak eskatu behar ditu.

3. Errolda administrazio erregistroa da, udalerrian bizi diren pertsona guztien bizilekua eta inguruabarrak jasotzea bakarrik da bere funtzioa. "Administrazio informazioaren" erregistroa da, helburu gisa administrazio publikoei beren funtzioak modu eraginkorrean garatzea errazteko informazioa ematea duena. de la información que facilite el más eficaz desarrollo de sus funciones.

TAOLren 16. artikulua zera dio: *"udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrek"*. *"Zerbitzu publikoak planifikatzeko udalerriko benetako biztanleria jakin behar dira. Erroldak udalerrri bateko biztanleria osatzea du helburu"* (TAOL 15.2 artikulua). *"Udalak arduratzen dira errolda egiteaz, eta erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealitatearekin bat etor daitezen"* (TAOL 17. artikulua).

Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 77. artikulua betebeharrak hori nola gauzatu behar duten azaltzen du: *"Udal erroldaren eta errealitatearen arteko bat-etortzea lortzeko, Udalek laginketak eta kontrolak egin behar izango dituzte sistematikoki eta biztanleek mugikortasun handiagoa izan dezaketen sektoreetan indartu behar izango dira. Aldizka erroldaren benetako egoera egiaztatzeko eta bertan agertzen diren datuak eguneratzeko eremuko lanak egin behar izango dira, arreta berezia jarriz urbanizazio berriak, eraikuntza berriak, eraispenak, eta abar egiteko udal baimena eman zaien guneei eta horien emaitzak Estatistikako Institutu Nazionalari jakinaraziz"*.

Bestalde, BLMAren 107. artikulua, zigortzeko arrazoi gisa jasotzen du erroldatzearen inguruko betebeharrak ez betetzea. Araudiak ez du uzten errolda eta udalerrian benetan bizi diren pertsonak bat ez etortzea. Egokitzekeo alta edo, hala denean, ofiziozko baja agintzeko prozedura hastea aurreikusten da (BLMAko 71., 72. eta 73. artikulua). Halaber, aurreikusten du, *"erroldan agertzen diren datuak errealitatearekin bat etor daitezen Udalak erroldak eguneratuta izateko beharrezko eguneratzea eta lanak egin ezean, Estatistikaren Institutu Nazionalak, Erroldatze Kontseiluaren txostenaren*





ondoren, TAOLen 60. artikuluan aurreikusitako ordezeko burutzapenera jo ahal izango du, egokiak diren errekurtsu jurisdikzionalen kaltetan izan gabe” (BLMA 62. artikulua).

4. TAOLen 17. artikulua Estatistikako Institutu Nazionalari eskumena ematen dio egon daitezkeen hutsak zuzendu eta bikoiztasunak saiheste aldera egiaztapen egokiak burutzeko eta Udalei estatu mailan erroldako datuek biztanleriaren estatistikak egiteko oinarri bezala balio dezaten beharrezkoak diren jarduerak eta lanak Udalei jakinarazteko. Urteko berrikusketen ondoriozko kopuruak ofizialak izan daitezzen eta udalek Hauteskunde Zentsuko datuak, behar bezala eguneratutakoak, igorri ahal izan ditzaten. Halaber, Estatistikako Institutu Nazionalaren buruari erroldatzearen arloan Udalen, probintzietako aldundien, irletako Kabildoaren eta Kontseiluen edo erakunde horien eta Estatistikaren Institutu Nazionalaren artean sor daitezkeen desadostasunen ebazpena eman dio.

Erroldatze Kontseilua ere araupetzen du, Ekonomia eta Ogasun Ministeriora adskribatutakoa, Estatuko Administrazio Orokorraren eta erroldaren arloko Toki Erakundeen arteko lankidetzarako kide anitzeko organo bezala. Besteak beste udal erroldak kudeatzeko beharrezkoak diren argibide teknikoak onesteko funtzioa du.

Estatistikako Institutu Nazionalak emandako jarraibideen artean hiru aipatuko ditugu horien edukitik nahiko garbi ondorioztatzen da udal erroldaren izaera eta helburua.

Lehenenik, udal errolda berrikusteko eta kudeatzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen dituen Ebazpena, 1997ko apirilaren 1ekoa, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa (1997/04/11ko EAOean). Ebazpen horretan ezartzen dira udal erroldan gertatzen diren aldaketak izapidetzeko prozedurari buruzko argibideak, *“a fin de armonizar, las obligaciones de los ciudadanos de inscribirse en el padrón del municipio en que residen habitualmente y comunicar los cambios de residencia que les afecten, con el derecho a fijar libremente la residencia que reconoce la Constitución, así como coordinar las actuaciones entre los Ayuntamientos afectados”*.

Bigarrenik, udal errolda eguneratzeko udalentsako argibide teknikoak ezartzen dituen Ebazpena, 1997ko uztailaren 4koa, Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa (2007/07/25eko EAOean). Ebazpen horretan, Biztanleriaren eta Lurralde





Mugapenaren Araudiaren 59.2 artikuluan aurreikusitako Udalaren ahalmenaren irismena argitzen da.

“La posibilidad de que el Ayuntamiento solicite del vecino el título que legitime la ocupación de la vivienda (art. 59.2 del Reglamento), no atribuye a las administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamiento urbanos o, en general, de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el domicilio que ha indicado.

Por ello, este título puede ser una escritura de propiedad o un contrato de arrendamiento, pero también un contrato de suministro de un servicio de la vivienda (agua, gas, electricidad, teléfono, etc.) o incluso, no existir en absoluto (caso de la ocupación sin título de una propiedad ajena, sea pública o privada. En este último supuesto, el gestor municipal debería comprobar por otros medios (Informe de la Policía Local, inspección del propio servicio, etc.) que realmente el vecino habita en ese domicilio, y en caso afirmativo inscribirlo en el padrón, con completa independencia de que el legítimo propietario ejercite sus derechos ante las autoridades o Tribunales competentes, que nunca serán los gestores del padrón”.

Aurrerago, ebazpen honetan bertan, bizigarritasun baldintzak aipatzen dira.
4. jarraibidea:

“Como se ha indicado en la norma anterior, el Padrón debe reflejar el domicilio donde realmente vive cada vecino del municipio. Siempre que se produzca esa realidad debe hacerse constar en el padrón. Y de la misma manera que la inscripción padronal es completamente independiente de las controversias jurídico-privadas sobre la titularidad de la vivienda, lo es también de las circunstancias físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio.

En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas etc. e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el Padrón, ya que la realidad es en ocasiones así”.

Araudi hau aplikatu behar dute udalek, izan ere, ikusi den bezala, Estatistikako Institutu Nazionalarekin partekatzen dute eskumena, “egon daitezkeen hutsak zuzendu eta datuen bikoiztasunak saiheste aldera”. EAOn argitaratu ziren ebazpen horiek. Haien izaera juridikoa xedapen orokor batena da, izan ere, arautzeko helburua dute eta hartzaile kopuru mugagabeari zuzenduta daude, hau da, abstrakzio ukitua eta izaera ordenatzailea dute (Auzitegi Goreneko





Hirugarren Salaren 1997ko maiatzaren 5eko epaia: "...lo que caracteriza a éstas es su aptitud de inserción en el ordenamiento jurídico en abstracto, como fuente de plurales aplicaciones ulteriores...").

Erroldatze Kontseiluak honakoa erantzun du, 1997ko apirilaren 14ko Kontsulta, etxebizitza okupatzea legitimatzen duen titulua izateari buruzkoa:

"La facultad atribuida a los Ayuntamientos en el artículo 59.2 del Reglamento de Población para comprobar la veracidad de los datos consignados por los vecinos, exigiendo al efecto, entre otros documentos, la presentación del título que legitime la vivienda, tiene como única finalidad servir como un elemento de prueba para acreditar que el vecino efectivamente reside en el domicilio que a indicado, con independencia de que esté legalmente legitimado para residir en ese domicilio y/o de las acciones legales que puedan ejercitar los propietarios legítimos de la vivienda por su ocupación ilegal, pues el Padrón es un registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España.

Por tanto, carecer del título que legitime a ocupación de la vivienda no inhabilita al ciudadano para su inscripción en el Padrón, pudiendo el Ayuntamiento recurrir a otros medios de prueba, como pueden ser contratos de algún servicio de la vivienda (agua, luz, gas...) o a informes de la Policía Local. Con respecto a otros medios de prueba que puedan ser aportados por los afectados, consistentes en certificaciones de vecinos, el Ayuntamiento dispone de sus propios medios para comprobar la veracidad de los datos, pudiendo aceptarlos como prueba o comprobar la residencia por sí mismo."





Erroldatze Kontseiluari egindako kontsultaren erantzuna ere aipatzen dugu. Kontsulta 2004ko abenduaren 1an egin genuen eta horren arabera, udal erroldan izena emateko aukerari dagokionez, EBkoak ez diren herrialdetako nazionalak okupatutako etxebizitzetan bizi daitezke, bizigarritasun baldintzek baimentzen dutena baina pertsona kopurua handiagoarekin. *“Es posible dar de alta en el Padrón municipal en viviendas ocupadas por extranjeros no comunitarios en número superior que las condiciones de habitabilidad que las mismas permitan siempre que vivan en la misma, para lo cual el Ayuntamiento puede comprobar que realmente residen en dicha vivienda, dado que de la misma manera que la inscripción padronal es completamente independiente de las controversias jurídico-privadas sobre la titularidad de la vivienda, también lo es de las circunstancias físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio, con independencia de las acciones que el Ayuntamiento deba realizar para paliar estas situaciones”.*

Azkenik, 2004ko urtarrilaren 1ekoa azpimarratu nahi dugu, isiltasun positiboari buruzkoa:

“La Comisión Permanente del Consejo de empadronamiento, en la reunión de 30 de septiembre de 2003, abordó el asunto del falseamiento en los empadronamiento sin que llegara a encontrar una solución idónea para poder evitarlos, salvo remitirlos a las legislaciones específicas sectoriales. No obstante, se estuvo de acuerdo en que, con carácter general, siempre que un ciudadano solicite el alta en el Padrón de un municipio aportando los documentos que se relacionan en la Resolución de 4 de julio de 1997 para probar su residencia real se procederá a realizar su inscripción en el Padrón. Ahora bien, cuando existan indicios que hagan dudas de que se vaya a establecer la residencia en el municipio, antes de proceder al alta en el Padrón, el Ayuntamiento podrá efectuar las comprobaciones adicionales que estime oportunas para comprobar la veracidad de los datos consignados en la solicitud de alta. Por otro lado, la inscripción en el Padrón de un municipio como consecuencia de un cambio de residencia comunicado por el ciudadano se produce tras la tramitación del expediente administrativo iniciado a instancia de parte. Las normas que regulan el procedimiento para la tramitación de este expediente (Resoluciones de 1 de abril de 1997 y 4 de julio de 1997, amén del Reglamento de Población y Demarcación territorial aprobado por el Real Decreto 2612/1996, de 20 de diciembre), no establecen plazo para su resolución y notificación al interesado, por lo que habrá que acudir al plazo general de tres meses establecido en el artículo 42.3 de la Ley 30/1992, de 26 e noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Durante este plazo de tres meses (contados desde la fecha en que la solicitud de alta haya tenido entrada en el Registro municipal), descontado el





periodo necesario para el trámite de audiencia (mínimo 10 días y máximo 15, según el art. 84 de la Ley 30/1992), el órgano competente del Ayuntamiento realizará de oficio los actos de instrucción necesarios para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales deba pronunciarse la resolución (art. 78 de la Ley 30/1992), en el caso que no ocupa, que realmente el ciudadano ha cambiado su residencia y que su nuevo domicilio es el que ha consignado en su solicitud de alta.

*Para el caso al que se refiere la consulta, en el que un ciudadano parece que solicita el alta, autorizada por el dueño residente en la vivienda, y a la vez éste último solicita su baja en un breve espacio de tiempo, para luego volver a repetir el procedimiento con el mismo u otros ciudadanos, el Ayuntamiento, antes de dar el alta podría agotar el plazo de los tres meses, actuando así de forma disuasoria, para evitar que se continúe con estas actitudes fraudulentas, lo que no quita, por supuesto, para que el Ayuntamiento advierta (o sancione directamente sin advertir) de las infracciones en las que pudiera estar incurriendo y de las sanciones que se pueden derivar. **Para finalizar, conviene recordar que si el Ayuntamiento no notifica dentro de los tres meses la resolución estimando o desestimando la solicitud, opera el silencio positivo y el ciudadano quedará a todos los efectos empadronado en ese municipio (art. 43 de la Ley 30/1992)**".*

Azken batean, erroldan izena ematea arautzen duen araudian, eman diren jarraibideetan, eta Erroldatze Kontseiluari egindako kontsulten erantzunetan argi agertzen da beharrezkoa dela, udalerrian biziz gero, erroldan izena ematea okupazio titulua, bizigarritasun baldintzak edo hirigintza plangintza gorabehera.

5. Azkenik, Udalak ez dio idatziz erantzun helbidea aldatzeko eskaerari, eta hori administrazio egokia deitzen denaren aurkakoa da, pertsonen eskaerei berariazko erantzuna eman behar baitaie arrazoizko epe batean, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan aurreikusitako ebazteko betebeharra ez betetzea baitakar. Lege horrek egindako eskaera guztiei erantzuteko betebeharra ezartzen du: *"Administrazioa behartuta dago prozedura guztietan berariazko erantzuna ematera eta hori jakinaraztera, prozedurei hasiera emateko modua edozein dela ere"*

Gainera, epe horretan erabakirik eman ez denez, **erroldan izena emateko eskaera aintzat hartu daiteke**, aurreko legearen 43. artikuluan aplikazioan. Artikulu horrek ezartzen du herritarrek hasitako administrazio prozeduretako beren eskaerak administrazio isiltasuna dela eta aintzakotzat har daitezkeela, epea igaro denean berariazko ebazpenik gabe, kasu honetan bezalaxe. Hortaz gain, artikulu horrek ustezko horietan eman daitekeen ebazpena eskaera





berrestea dela dio, 43.4 art: *“Ebazpen adierazia eman beharrak, 42. artikuluko lehen paragrafoan ezarrita dagoenak, araubide hau izango du:*

Administrazio-isiltasunez baietsitako kasuetan, egintzaren ondoren ebazpen adierazia ematekotan berresteko izango da.”

Artikulu honek, azkenean (43.5), honako hau adierazten du: *“Administrazio-isiltasunez egindako administrazio-egintzak edozeinen aurrean baliarazi ahalko dira, dela administrazioan dela edozein pertsonaren aurrean, fisiko nahiz juridiko, publiko nahiz pribatu. Ebazpen adierazirik ematen ez bada, egintza horiek ondorioak izango dituzte ebazpen adierazi hori eman eta jakinarazteko dagoen gehienezko epea amaitzen denetik; eta, egiaztatu, zuzenbidean onartutako edozein frogabidez egiazta daitezke, baita ebazteko eskumena duen organoak isiltasuna gertatu dela egiaztatzeko emandako ziurtagiriaz ere. Ziurtagiria eskatzen bazaio, organo horrek, gehienez ere, hamabost eguneko epean eman beharko du.”*

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da

32/2008 GOMENDIOA, abenduaren 19koa, Hernaniko Udalari egina

Beharrezko izapideak egin ondoren, udal erroldan izena ematearen ziurtagiria egin dezala.

